

MEJORANDO VITORIA GASTEIZ HOBETUZ

Ez onartutako proposamenak

PROPOSAMENAREN IZENBURUA	KOSTUA	OHARRAK
KOROATZE AUZOKO JULIAN APRAIZ ETA LARRUGILE KALEAK BERRITZEA	1.960.000	GAINDITU EGITEN DU AURREIKUSITAKO KOSTUA Larrugile kalea berritzea 1.000.000 Julian Apraiz kalea berritzea 960.000
BOLIVIA KALEKO IGAROBIDEAK BIZIKLETENTZAKO LONJA MODUAN ERABILTZEA.		Jabeen Erkidegoari legokioko.
GURE KALEA ERE GREEN CAPITAL DA ZUK BIRZIKLATU ETA UDALAK KONPENTSATU EGINGO DIZU		Etxebizitza oso gutxi ditu kale honek (15 etxebizitza inguru, bebarru bati dagozkionak), eta etxebizitza-dentsitate oso txikia duen kalea denez ezin dira birziklatzeko edukiontziak jarri. Edukiontzi normalak daude. Garbitzea, kimatzea eta sastraka kentzea dira egiten ari diren lanak.
TXAGORRITXU GIZARTE ZENTROA	> 450.000	Aurrekontuak nabarmen gaindituko luke aurreikusitako kopurua
GUZTIONTZAKO EREMU BAT ANTOLATZEA WIFI KONEXIOAREKIN		Sareak ustiatzeko baldintzak eta komunikazio elektronikoen zerbitzuak eskaintzeko baldintzak arautzen dituen CMT telekomunikazioen Merkatuko Batzordearen 1/2010 Zirkularra
LARREIN PASAGUNEA	1.500.000	GAINDITU EGITEN DU AURREIKUSITAKO KOPURUA
MENDIZORROTZEKO INSTALAZIOETAKO KANPOKO 1, 2 ETA 3 PISTAK ESTALTZEA	662.633	GAINDITU EGITEN DU AURREIKUSITAKO KOPURUA
ESKUINERAKO ERREIAREN SEINALEAK JARRI ZADORRA BIZI	100	Talka egiten du hiri guztian ezartzen ari diren irizpideekin. Iradokizun hau biribilguneetan seinaleak jartzeko gomendatu beharreko irizpideetatik kanpo geratzen da.
AUTOBUSAK MARTXAN		URA Uraren Euskal Agentziari dagokio
TXIRRINDULARI ETA PATINATZAILEAREN SEINALE BERTIKALA JARTZEA (BIDEGORRIA) OINEZKOENTZAKOEN ONDOAN.	900	Mikrobusak erosteak garestitu egingo luke enpresarentzako kostu ekonomikoa Irizpide moduan onartu da txirrindularien pasabiderako arauzko seinaleztapen horizontala, kolore horiko sigi-saga gehigarriarekin sendotuta semafororik gabeko bidegurutzetarako, nahikoa dela txirrindularien pasabide gehienetarako. Egokiagoa iruditzen zaigu seinaleztapen bertikala jartzea, duten berezitasunagatik, bideko abiaduragatik, trafiko-bolumenagatik, eta abarregatik neurri osagarriak beharko lituzketen bidegurutzetako segurtasuna sendotzeko. Era horretan, seinaleztapen bertikalaren eraginkortasuna handiagoa izango litzateke.
LABIRINTO LORATEGIA HORREN BARRUAN GALTZEN AUSARTUKO ZINATEKE?		Hirian ez dago leku egokirik lorategia jartzeko. Era horretako labirinto batek zaintzapean egon behar du, ez da nahikoa hesi batekin inguratuta egotea eta gauez ixtea. Ez da bideragarria pertsona bat kontratatzea kontrol-lanak eta zaintza-lanak egiteko.

MEJORANDO VITORIA GASTEIZ HOBETUZ

Ez onartutako proposamenak

PROPOSAMENAREN IZENBURUA	KOSTUA	OHARRAK
ARGENTINA ETA HORREN INGURUAK DENON GUSTURA		<p>2017ko udal aurrekontuaren zati bat zertarako erabiliko den guztion artean erabaki behar dugula pentsatzen dugunon Programaren helburuetan ez da egokitzen planteatutako proposamena.</p> <p>Proposamenak zalantzan jartzen du udalaren jarduketetako bat eta berriro aztertu dadila eskatzen du; guri, berriz, iruditzen zaigu egokiagoak diren bideak badaudela horretarako (Elkarguneak, Auzoguneak, Udal Batzordeak, Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Herritarren Foroa, ...)</p>
GAZTELANIA = EUSKARA		<p>Proposamenak ez du inolako zehaztasunik. Ez du planteatzen gauzatu beharreko programa bat eta helburu generiko batera mugatzen da "bi hizkuntza ofizialak parekatzea". Horrela erabat ezinezkoa da behar diren baliabideen inolako balioespenik egitea eta zenbat beharko litzatekeen jakitea.</p> <p>Bestalde, eta nola, noiz eta non egin nahi den proposamena galdetzen denean behin eta berriro proposamenean erantzuten bada "euskara bultzatzeko gaur egun dauden berak", argitu beharrekoa izango da gaur egun udalak talde politiko guztien adostasunarekin onetsia duela Euskararen Erabileraren Normalizaziorako Plan bat, eta horren barruan ekintza eta programa desberdinak jasotzen direla "beste hizkuntza ofiziala den gaztelaniari dagokionez hirian hizkuntza minorizatua den euskararen erabilera sustatzeko" helburuarekin.</p>
SALBURUA PASAGUNEA,	1.500.000	GAINDITU EGITEN DU AURREIKUSITAKO AURREKONTUA
KIROL-AISIALDIRAKO ZONALDEA	450.000tik gorakoa	GAINDITU EGITEN DU AURREIKUSITAKO AURREKONTUA
OHZ KOBRATZEA		<p>2017ko udal aurrekontuaren zati bat zertarako erabiliko den guztion artean erabaki behar dugula pentsatzen dugunon Programaren helburuetan ez da egokitzen planteatutako proposamena.</p> <p>Proposamenak zalantzan jartzen du udalaren jarduketetako bat eta berriro aztertu dadila eskatzen du; guri, berriz, iruditzen zaigu egokiagoak diren bideak badaudela horretarako (Elkarguneak, Auzoguneak, Udal Batzordeak, Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Herritarren Foroa, ...)</p>
LAPURTUTAKO BIZIKLETAK		<p>Pentsatzen dugu jarduketa hori bideragarria dela baina ez dugu uste, planteatuta dagoen moduan, deialdiaren izaerarekin erabat ahokatuko ez denik, izan ere, ez dirudi ekarpen ekonomikorik behar denik horretarako, eta bai, ordea, prozedura egokiak gauzatzea Udaltzaingoak kudeatzen duen lapurtutako bizikletak biltegitratzeko kudeaketan. Kasu horretan, zehazten zaila izango litzatekeen zenbateko ekonomiko bat jarri beharko litzateke.</p>

MEJORANDO VITORIA GASTEIZ HOBETUZ

Ez onartutako proposamenak

PROPOSAMENAREN IZENBURUA	KOSTUA	OHARRAK
TXAKURRAK		2017ko udal aurrekontuaren zati bat zertarako erabiliko den guztion artean erabaki behar dugula pentsatzen dugunon Programaren helburuetan ez da egokitzen planteatutako proposamena. Proposamenak zalantzan jartzen du udalaren jarduketetako bat eta berriro aztertu dadila eskatzen du; guri, berriz, iruditzen zaigu egokiagoak diren bideak badaudela horretarako (Elkarguneak, Auzoguneak, Udal Batzordeak, ...)
BASTITURRI-ANTSO JAKITUNA-RICARDO BUESA OINEZKOEN ARDATZA HIRU PROBINTZIEN PLAZA-JESUSEN ZERBITZARIEN KALEA-DIPUTAZIO KALEA INGURUNEAREKIN ERREMATATZEA.	1.278.000	GAINDITU EGITEN DU AURREIKUSITAKO AURREKONTUA
TXAKUR-KAKEN ADN-AREN ERROLDA		GAINDITU EGITEN DU AURREIKUSITAKO AURREKONTUA. Gasteizen 20.000 txakur inguru daudela pentsatzen dugu. Txakur bakoitzaren ADN erroldatzearen kostua 40 eurokoa izango dela jotzen da. Horrenbestez, 800.000 euroko kopuruaz arituko ginateke, eta horrek, nabarmen gainditzen du proiektu guztietarako dagoen kopuru ekonomikoaren % 15a. Gainera, ADN erroldatzeko programa horren iraupena urtebetetik gorakoa izango litzateke eta ekonomia aldetik ezinezkoa izango litzateke horren jarraipena egitea.
ZUHAITZ-TXORKOAK TXUKUNTZEA		Zuhaitz-txorkoetako zoladura jartzeko drainatze-materiala erabiltzea aspalditik egin izan da hirian. Denborarekin ikusi da konponbide hori ez dela egokia, izan ere, garbiketako makinak eta eguraldiaren eraginagatik material horiek sakabanatu egiten dira eta gaur egun zoladura jartzen da horietan edo txorkoak espaloien pareraino estaltzen dira espaloietan erabilerraztasuna hobetzeko. Bestalde, zuhaitz-txorkoetan zoladura jartzea kontraesan bat da Zerbitzu honetan lantzen den Azpiegitura Berdearen proposamenarekin.
HIRIKO HELIPORTUA		Larrialdietako helikopteroek lurra hartzeko orain erabiltzen duten lurzattia Eusko Jaurlaritzaren Ogasun Sailaren jabetzakoa da
JUDIMENDIKO AUZOA "GAZTETU" EGITEN DA URTARO BAKOITZA ALDATZEN DENEAN ETA GUZTION OSASUNA ZAINTZEN DU		Ez da bideragarria, izan ere, proposatutako jarduera batzuk gauzatzekoan ezkutatu egingo litzateke Gasteizen egiten dena. Zehaztasuna falta da eskumena eta bideragarritasuna balioetsi ahal izateko.
HIRIGINTZA OSASUNGARRIA. JOSE MARDONES KALEA, DONE JAKUE HIRIBIDEA ETA JUDIMENDIKO PARKEA BERRITZEA	6.115.000	GAINDITU EGITEN DU AURREIKUSITAKO AURREKONTUA. Jose Mardones kale guztia berritzea 2.240.000 / Done Jakue Hiribidearen kale guztia berritzea 3.800.000 / Judimendiko parkea berritzea: ez dugu uste Judimendiko parkea erabat berritzeko premiarik dagoenik, baina, jarduketaren bat egin beharko litzateke agian oholtzan. 75.0000
HELIKOPTEROA		Larrialdietako helikopteroek lurra hartzeko orain erabiltzen duten lurzattia Eusko Jaurlaritzaren Ogasun Sailaren jabetzakoa da

MEJORANDO VITORIA GASTEIZ HOBETUZ

Ez onartutako proposamenak

PROPOSAMENAREN IZENBURUA	KOSTUA	OHARRAK
LAKUA GIZARTE ETXEKO APARKALEKUA ZELEDON PHOTOCALL-A, ATERA EZAZU ARGAZKIA		Hobekuntzak egin behar dira, baina hori ezin da handitu alboko lurzatiak beste erabilera-sailkapen bat duelako
AUTOESTIMURAKO TAILERRAK TRATU TXARRAK JASAN DITUZTEN EMAKUMEENTZAT		Proposamena EZ da teknikoki egokia proposatzen den moduan, izan ere, era horretako tailerrak udalak gauzatzen ditu aspaldiko urte hauetan, nahiz eta behar bezala ez zabaldu herritarrentzat. Izan dituzten premien arabera eta indarkeriaren biktima diren aldetik ostatu hartze zerbitzua, arreta psikologikoarena, juridikoa, laguntza ekonomikoa eta udalak eskaintzen duen beste edozein baliabide jasotzeko aukera izan duten emakumeekin osatzen dira tailerrak. Tailer horiek ez dira jakitera ematen eta ez dira Eskolaren eskaintza orokorraren barruan sartzen, indarkeria matxista jasan duten emakumeen estigmatizazioa ekarriko lukeelako.
IBAIERTZEKO PARKE BAT SORTZEA ZADORRAN		URA Uraren Euskal Agentziari legokioke. Proposatzen den parkea Zadorra Ibaiko uholdeen prebentziarako proiektuaren barruan sartua dago. II. fasea ABETXUKO Zubia - GAMARRA HANDIKO ZUBIA. Hori URA Agentziak eraiki beharko luke, erakunde horren eta GASTEIZKO UDALAREN artean sinatu duten hitzarmenaren arabera.
DROGEN KONTSUMOAN ARRISKUAK GUTXITZEKO EKINTZAK	48.295	Dagoeneko udalaren diru-laguntzaz gauzatzen ari den proiektu bat da eta gauzatzen jarraituko dela dago aurreikusita.
VOLUNTARIA ENTREGA KALEA BERRITZEA, 49 ZENBAKITIK 77RA	510.000	GAINDITU EGITEN DU AURREIKUSITAKO AURREKONTUA
EREMU FISIKO BAT SORTZEA IKASTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN HAURRENTZAT ETA HERRITARREN ADIBIDEA.		Proposamenean eduki desberdinak nahasten dira zertan oinarritzen da atalean. Ez du bakar bat ere behar hainbat gauzatzen balioetsi ahal izateko.
AUTOBUSEN L7 LINEA HANDITZEA		Lineen diseinuan ezarri zen herritar gehienek garraio-sarerako aukera izan behar dutela 350 metroko ingurune batean. Aukera horrek zuzenean edo autobus edo tranbiaren beste linea batzuekin aldaketa eginez hirian barrena ibiltzeko eta leku desberdinetara iristea ahalbidetuko digu. Gaur egun, sarea baliabide propioekin etengabe hobetzen dela kontuan hartuta, beste era bateko jarduketei eman zaie lehentasuna.
BIRIBILGUNEA SALBURUA BULEBARREAN		Teknikoki bideragarria bada ere ez da balioetsi; jakin dugunez Eusko Jaurlaritza tranbia Salburua aldera hedatzeko azterketa bat prestatzen ari da eta hori horrela baldin bada baliteke eragina izate bide horretan.

MEJORANDO VITORIA GASTEIZ HOBETUZ

Ez onartutako proposamenak

PROPOSAMENAREN IZENBURUA	KOSTUA	OHARRAK
OINEZKOENTZAKO PASABIDEA ELORRIAGAKO ATEAN		Ez da balioetsi, 2016an bide-segurtasuna hobetzeko jarduketan proiektuan oinezkoentzako pasabide hau gauzatzea aurreikusten delako. 2016rako gauzatzea aurreikusita dago.
TXIKITXOKO		<p>2016ko ekainaren 24an Udalak oniritzia ematen du AGLE Gizarte Laneko Elkarte Arabarrarekin beste hitzarmen bat sinatzeko Loremaitea programaren garapenerako, zerbitzu horren bidez laneko eta familiako kontziliaziorako laguntzak eskaintzen zaizkie baliabide ekonomiko eta sozial gutxiako familia gurasobakar aitadun edo gurasobakar amadunei. Horretarako 40.000 euroko ekarpena egingo du.</p> <p>Gasteizko Udalak beharrezkoa ikusten du AGLEk garatzen duena bezalako programak sustatzea, arriskuan dauden edo gizartetik baztertuta gera daitezkeen eta laneko merkatuan sartzeko arazoak dituzten pertsonen zuzendutakoak direlako eta autonomia pertsonala lortzeko bidean laguntza behar dutelako.</p> <p>Arreta osoko zerbitzu honen bidez pentsatzen dugu erantzuna ematen zaiola proposamen honetan eskatzen denari.</p>
JOLASERAKO ETA KIROLERAKO AZPIEGITURAK		Kantxak jartzeko proposatu den lurzatia Lakuako Azpiegitura Berdearen proiektuarekin laster esku hartuko den ekipamenduko lurzati bat da.
OSASUNA OINEZ!		<p>Proposamen bat da eta adineko pertsonetan jardura fisikoa bultzatzea du helburu, ibiltzea edo bastoiekin ibiltzea sustatzeko ekintzen bidez, nolahi ere, helburu hori lortzeko balizamendu sistema bat jarri behar da guneko publikoan eta horrek garrantzizko inbertsioa egitea eskatzen du. Pertsona bakoitzak egiten duen kilometro-kopurua jakitea (txartel bat beharko da horretarako) izango da balizamendu horren helburua.</p> <p>Lortu nahi den helburua bat dator Udalak nahi duenarekin, baina:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Badira jardura fisikoa sustatzeko kanpainak: ibilbideak naturan barrena, ariketak egiteko gelak, ibilbideak eratzun berdean, eta baita oinez ibiltzea sustatzeko (gelditzeak) eta erabiltzaileek gutxi eskatu zituzten bastoiak erabiltzeko esperientzia puntualak ere. • Programa bat lantzen ari gara eta gure eratzunean ditugun ibilbidean kontuan hartuta ibilbideen fitxa batzuk eskaini nahi ditugu distantziaren eta zailtasunaren arabera. Ibilbide horiek prestatzen ditugunean horiek sustatzeko ekintzak egingo dira. Aplikazio bat lantzen ere ari gara, horren bidez, pertsona bakoitzak bere etxean bere egoeraren eta baldintzen arabera jardura-programa bat lortu ahal izango du, eta gainera, programa horren bidez kirolerako guneko horietako baliabideen, jardueraren eta horretarako egokiak diren ibilbideen eta udal ekipamenduen informazioa emango dio. <p>Horregatik guztiagatik, eta antzekoak diren gauzak lantzen direnez eta helburuari begira proposamenak duen kostu handia kontuan izanik, ez da bideragarria ikusten. Bestalde, balizamendu horren barruan hiriaren barruan egiten diren eta balizatuta dauden kilometroak sartzen dira, eta horregatik ibilaldiak markatutako ibilbideetan egitea sustatu nahi dugu, baina urrundu egiten da Hiria ibiltzeko guneko moduan</p>

MEJORANDO VITORIA GASTEIZ HOBETUZ

Ez onartutako proposamenak

PROPOSAMENAREN IZENBURUA	KOSTUA	OHARRAK
		erabiltzetik, horretarako aukerak murriztuz. Eskaintzen duenari dagokionez: zenbat kilometro egin ditugun jakitea, badira banako erabilerarako aplikazioak, edonork erabiltzeko modukoak, eta gainera, beste emaitza batzuk ere ematen dituzte (egindako ibilbidea, eta abar).
KALEKO JARDUERAK GASTEIZEN EURIA EGITEN DUENEAN		Inguru hori erabat berritzeko proiektu bat idazten ari dira eta horren egitura erabat aldatuko luke: bideak erabat aldatuko lirateke, Hiribidean egin denaren antzeko zerbit.
UDALAK KIROL TALDEEI EMANGO DIZKIEN LAGUNTZAK ENTRENAMENDUETARAKO ERABILTZEN DITUZTEN UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ORDAINTZEKO		Ez da proiektu bat, laguntzak eskatzea baizik, taldeen entrenamenduetarako instalazioak ordaintzeko, eta horrenbestez, prezioak jartzen dituen Ordenantzaren aurkakoa izango litzateke. Nolanahi ere adierazi beharra dago taldeen denboraldiko entrenamenduetan % 50eko beherapena egiten dela kantxaren prezioaren gainean.
SAN INAZIO FUTBOL-ZELAIA HOBETZEA (ADURTZA)	600.000	Soropil artifiziala duten futbol-zelaietan bizitza erabilgarria betetzeagatik horiek berritzeko premiak instalazio guztietan daude baina hori bizitza erabilgarria amaitzen denean egin beharreko lana izaten da. Asko dira premiazko hobekuntza behar duten futbol-zelaiak aurrekontuetako egoera kontuan izanik eta horri begira Gobernu honek hitzarmen bat sinatu du Futboleko Arabako Federazioarekin eta Hiriko Futbol Taldeen Batzordearekin egutegi baten arabera hobekuntza-inbertsioak egiteko, eta horren ondorioz, hainbat urtetarako kontu-sail bat jarri dute horien garapenerako. Plangintza horren barruan, sail horretan 600.000,00 euroko aurrekontua dago eta 2019an ordezkatuko da. 2018rako aurreikusita dagoen beste hobekuntza bat Adurzabalen aldagela berriak eraikitzea izango da.
ZIBERKAFETEGIA		Proposamena planteatzen den moduan ekimen pribatutik eskaini daitekeen zerbitzu bat da, eta ez zerbitzu publiko bezala eskaintzekoa. 8 Gizarte Etxeetan bada sarean sartzeko aukerarik ez duten pertsonen beharrak beteko dituen zerbitzu bat, KZguneak.
ZENTROA GAZTEENTZAT BAKARRIK		Gizarte-etxeetako erabilera libreko zerbitzu guztietan badira "estalita" egon behar izatearen premia betetzen duten zerbitzuak. Egiten den planteamendua gazteentzako lonjarena da, eta hori ez du administrazioak zertan ordaindurik.
TRANBIA HOBETZEA		Garraio publiko kolektiboaren eskumena udalarena baldin bada ere, tranbia-linea bat gehiago jartzea Eusko Jauriaritzari dagokio. Gaur egun Gasteizko garraio-zerbitzua tranbiak eta hiriko autobusen sareak bermatzen du egunez eta TUVISAren Gautxori zerbitzuak gauzez.

MEJORANDO VITORIA GASTEIZ HOBETUZ

Ez onartutako proposamenak

PROPOSAMENAREN IZENBURUA	KOSTUA	OHARRAK
HERRIETAKO AUTOBUSEN ORDUTEGIA		Udalak TUVISAren bidez eskaintzen du mugikortasuneko BUX zerbitzua Kontzejuen eta Gasteiz artean. Ez da gure Udalaren eskumena Arabako herrietatik Gasteizerako mugikortasuna
KONEXIO ONEKO FREE WIFIA HIRIAN		Sareak ustiatzeko baldintzak eta komunikazio elektronikoen zerbitzuak eskaintzeko baldintzak arautzen dituen CMT telekomunikazioen Merkatuko Batzordearen 1/2010 Zirkularra
FUTBOL AMERIKARRAREN ZELAIA ETA TALDEA	450.000tik gora	Proposatzen dena bezalako azpiegitura bat eraikitzeak gainditu egiten du aurreikusitako aurrekontua
FUTBOL-ZELAIK		Salburuako zelaiak Natura 2000 Sarearen Babes Bereziko guneko bat da eta, horrenbestez, bateraezina da hori futbol-zelai bat egitea.
FUTBOL 11KO ZELAIK	450.000tik gora	GAINDITU EGITEN DU AURREIKUSITAKO AURREKONTUA
GUNEAK 13 URTETIK 17 ARTEKO GAZTEENTZAT		Gizarte-etxeetako erabilera libreko zerbitzu guztietan badira "estalita" egon behar izatearen premia betetzen duten zerbitzuak. Egiten den planteamendua gazteentzako lonjarena da, eta hori ez du administrazioak zertan ordaindurik.
BALIABIDEAK HOBETZEA (TRANBIA)		Garraio publiko kolektiboaren eskumena udalarena baldin bada ere, tranbia-linea bat gehiago jartzea Eusko Jaurlaritzari dagokio. Gaur egun Judimendiko auzoko garraioa hiriko autobus sareak bermatzen du egunez eta Gautxori zerbitzuak gaez.
ORDUTEGIA ETA BIDEGORRIK		2017ko udal aurrekontuaren zati bat zertarako erabiliko den guztion artean erabaki behar dugula pentsatzen dugunon Programaren helburuetan ez da egokitzen planteatutako proposamena.
HEZIKETA GEHIAGO HALA TXIRRINDULARIENTZAT NOLA OINEZKOENTZAT IBILTZEKO ORDUAN		Proposamenak zalantzan jartzen du udalaren jarduketetako bat eta berriro aztertu dadila eskatzen du; guri, berriz, iruditzen zaigu egokiagoak diren bideak badaudela horretarako (Elkarguneak, Auzoguneak, Udal Batzordeak, Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Herritarren Foroa, ...).
RENFEREN TRENA LURPERATZEA		Badira Udaltzaingoak kudeatzen dituen bide-hezkuntzako programak
GASTEIZEN TOPATZEN EZ DITUGUN DENDAK		Sustapen Ministerioari eta Eusko Jaurlaritzari dagokie
ITURRI GEHIAGO, GASTEIZKO JAIK LUZATZEA, KALITATEKO KIROL ZENTROAK AIRE LIBREAN		Saltoki berriak eta beste era bateko negoziok jartzea ekimen pribatuari dagokio Pentsatzen dugu hirian dugun iturri kopurua behar adinakoa dela. 361 dira. Eskaera puntualen bat aztertu daiteke. Ezin da eskaera generiko bat egin iturri gehiago eskatuz. Beharrezkotzat jo diren lekuetan daude. Iturri bakoitza kostu bat da, mantentze-lanagatik, duen kontadoreagatik, irekitzeagatik eta neguan ixteagatik. Horrenbestez, iturriak jar daitezke leku jakin batean beharrezkoa ikusten bada, baina kostu bat izango dute 2017tik aurrera.

MEJORANDO VITORIA GASTEIZ HOBETUZ

Ez onartutako proposamenak

PROPOSAMENAREN IZENBURUA	KOSTUA	OHARRAK
TRANBIAREN LINEA HEDATZEA		Garraio publiko kolektiboaren eskumena udalarena baldin bada ere, tranbia-linea bat gehiago jartzea Eusko Jaurlaritzari dagokio. Gaur egun Judimendiko auzoko garraioa hiriko autobusen sareak bermatzen du egunez eta Gautxori zerbitzuak gaez.
ZIRKULAZIOA HOBETZEA ETA HAURREN IRITZIA KONTUAN HARTZEA		Aurkeztutako proposamenak aparkatzeko eremuaren erabilera mugatu behar izatea ekarriko du herritar gutxi batzuen mesederako eta gehiengoaren kalterako, horrenbestez, ez da bideragarria teknikoki.
BIDEGORRIAK HIRIAN, DENDA GEHIAGO HIRIAREN ERDIALDEAN		Proposamena ez dago batere argi planteatuta. Zehaztu gabe utzitako proposamen-nahaste bat besterik ez da. Beste hainbat proposamenetan jasota dago bidegorriari buruz planteatzen dena.
HERRITARRENTZAT IREKITZEA LERROKO PATINAKETARAKO PISTA EGIN ZUTEN LOGROÑO KALEKO LEHENGO IZOTZ-PISTA.	>450.000	Problematika berezi bat planteatzen da. Lokal hori desagertutako izotz-pistarentzat xedatu zen (Logroño kalea) baina urteak daramatza eginkizun hori bete gabe. Lokala Ondarearen esku dago eta beste erabilera batzuk ematen saiatu dira (garajea...). Badirudi arazoren bat dagoela zortasun-gune bat duelako eta horren ondorioz jabeak hainbat jarduketa atzera bota ditzakeelako. Izotz Pistaren garaian ere arazoak sortu ziren bizilagunekin, kirola egiterakoan enbarazuak sortzen zirelako etxebizitzetako etxabeak izateagatik. Bestalde, lokalari elementu guztiak kendu zizkioten eta horren egoera, gainera, ez zen batera ona. Horregatik, erabiltzerik balego, lokala berregokitzeak kostu handia izango luke. Gainera, instalazio itxia dela kontuan izanik hori irekitzeko pertsonala beharko litzateke. Gainera, Patinatze-jarduerak berariazko edukia baina ordutan mugatua eskainiko luke eta, horrenbestez, neurri horretako instalazioaren errendimendua ez litzateke behar bezalakoa izango eta gainerakoan dauden gabeziak ere nabarmenak dira. Hori martxan jartzeak Pertsonal gehiago behar izatea ekarriko luke, garbiketakoan eta mantentze-lanekoan ere eragina izango luke...Hori dela eta, ezin dugu onartu 2017ra mugatutako inbertsio bezala.
RAFAEL ALBERTI JOLAS ETA KIROLERAKO EREMUA	700.000	Aurrekontuak gainditu egiten du aurreikusitako gehienezko kopurua Patinaketarako pista perimetrala (500x6m) 250.000 Skate pista (1.200 m ²) 300.000Landaketak eta lurzatiaren gainerakoa egokitzea 150.000
JUDIMENDIKO ZAHARREN EGOITZAKO PROIEKTUA	>450.000	Beheko solairuetan 1.000 m ² ko eraikuntzarako >450.000 behar izatea, lokalak erostea kontuan izan gabe
AUTOMOBILENTZAT ZIRKUITU BAT EGITEA, BEREZIKI AUTOKROSSERAKO.	1.000.000	Aurrekontuak gainditu egiten du aurreikusitako gehienezkoa, eraikuntza gastuak bakarrik kontuan hartuta.

MEJORANDO VITORIA GASTEIZ HOBETUZ

Ez onartutako proposamenak

PROPOSAMENAREN IZENBURUA	KOSTUA	OHARRAK
DENBORA LIBREA, AISIALDIA ETA KIROL-HASTAPENAK BURU-NAHASMENDUA DUTEN ADIN TXIKIKOEKIN: LAN SOZIOEDUKATIBOARI ETA EGOKITZEKOARI ERANTZUNA EMATEA GIZARTEAK ETA GUTAKO BAKOITZAK ERANTZUN HOBEA EMATEKO.		Hainbat Administrazioaren eskumena da (Aldundia, Eusko Jaurlaritzza ...) Alde batetik, Arabako Foru Aldundiaren GOFek (urritasunaren eta mendekotasunaren alorrean eskuduntza duena) laguntzetarako deialdi bat du dibertsitate funtzionala duten era horretako pertsonentzat jarduerak antolatzeko. Bestetik, buru-nahasmendua edo beste muga batzuk dituzten pertsonak herritar guztientzat irekitako jardueretan sartzearen aldekoa da Udala, haur eta nerabe horien laguntzarako baliabideak jarrita (udalak antolatutako oporretako programa...) eta adibidez, kirolean ere badira diskriminazio positiboko hainbat neurri kolektibo batzuentzat. Nolanahi ere, departamentu desberdinetan (gizarte-zerbitzuak, gizarte-etxeak, kirola, alkatetza...) pentsatzen dugu hobetu beharra dagoela dibertsitate funtzionala duten pertsonen eskaintzen zaien arreta eta kontuan izango ditugu proiektu honetan agertzen diren iradokizunak eta hobekuntzak.
HORMA-IRUDIA BADAIA ETA DOMINGO BELTRÁN KALEKO IZKINAN		Horma-irudia jarri nahi den horma ikusi dugu eta fatxadako harria atera dien horma bat da.
KALEETAN SEINALEZTAPEN ARGIA GOA JARTZEA		Pentsatzen dugu dagoen errotulu-kopurua behar adinakoa dela kasu gehienetan. Horiek gehitzeko proposamen puntualen bat aztertuko da.
APARKALEKU HANDIA UNIBERTSITATEAN ETA INGURUETAN.		Ezinezkoa da proposamena balioestea, eremu desberdinetako lau egoera desberdin planteatzen dituelako. Zehaztasun eza
HONDATUTAKO ERREPIDEAK KONPONTZEA		Aipatzen diren Gasteizerako sarbideak Foru Aldundiaren eskuduntzakoak dira.
IGERILEKUETAKO ERABILTZAILEEN KOPURUA ETA INSTALAZIOAK BERRANTOLATZEA		Igerilekuak erabiltzeko tartea premien, ordutegien eta espazioen arabera antolatzea eta koordinatzea eskatzen du, tartek agendaren arabera banatuz. Orain egiten duguna egitea eskatzen da. Proposamenean ez da helburu, motibazio edo problematikarik adierazten "bere ustez egokitzen ez dena" zer den jakin dezagun, eta horrenbestez, ezin dugu erantzunik eman.
HERRANDARREN GELTOKIA, LUDOTEKA ETA HELDUENTZAKO KULTURA-ZENTROA IZANGO DITUEN ZENTRO MISTOA IZATEKO PROPOSAMENA	117.000 jardueraren urteko mantentze-lana eta Eraikitzea eta egokitzea > 450.000	Gizarte Etxeen Zerbitzuak erabiltzen dituen estandarrekin, erabil daitekeen espazioa ez da nahikoa proposamenean adierazten den guztia hor sartzeko. Ludoteka bat, helduentzako kultura-zentro bat, tailerretarako lekua, eta horri guztiari harrera, komunak, biltegiak eta abar jartzeko lekua gehitu beharko zaio. Helduentzako kultura-zentroa izateko egokitzea eta komun egokituak egiteko, ibilerraztasuna, erosotasuna eta atezaintza izateko, ez dago lekurik bi erabilera horietarako. GAINDITU EGITEN DU AURREIKUSITAKO AURREKONTUA
MADRIL KALEKO LEHENENGO BI BEBARRUETAN ESKU-HARTZEA OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEKO		Eskaera hori eremu pribatuan sartzekoa dela eta bizilagunen erkidegoek izan behar dutela beren jabetzaren barruko ibilerraztasuna hobetzeko lanak egin behar dituztenak.

MEJORANDO VITORIA GASTEIZ HOBETUZ

Ez onartutako proposamenak

PROPOSAMENAREN IZENBURUA	KOSTUA	OHARRAK
BURGOS KALEKO 17-19-21 ETA PEDRO IGNACIO BARRUTIA 10-12 ZENBAKIEN ARTEKO EZPONDETAN PREMIAZKO ESKU-HARTZEA EGITEKO PROPOSAMENA		<p>Zerbitzuan Azpiegitura Berdearen kontzeptua lantzen ari gara eta hori kontraesan bat litzateke lorategi bat hormigoitu behar baldin bada.</p> <p>Alternatiba moduan huntza kimatzea proposatzen da egoera hobetzeko eta belar-hazia botatzea duten aldapagatik eta argitasun baldintzengatik bideragarria den lekuetan.</p> <p>Zuhaitzak horretarako arrazoiren bat dagoenean bakarrik kimatuko dira. Bereziki adar lehorrak, pasabidea eragozten duten behe aldeko adarrak, arriskuren bat badago eta fatxadetatik urrutiratzeko, adar horiek metro 1 baino gertuago daudenean.</p>
AMAIA ZENTROAREN KANPOKO ATARIPEA ZENTRO HORRETAKO ARETO NAGUSI IZATEA ZINEMA, ANTZOKIA ETA ZENTRO IZATEKO AUZOKO GAZTEENTZAT		<p>Gizarte Etxeen Zerbitzuak erabiltzen dituen estandarrekin pentsatzen dugu gune hori ez dela egokia areto nagusia izateko.</p>
GASTEIZKO ZOOLOGIKOAREN PROIEKTUA		<p>ANIMALIAK EDUKITZEARI ETA BABESTEARI</p> <p>BURUZKO UDAL ORDENANTZA : 8. artikulua.- Debekuak.</p> <p>s) Animaliak baliatzea ikuskizunetan, zirkuetan, filmazioetan, publizitate jardueretan, kultur nahiz erlijio ospakizunetan eta beste edozein jardueretan, baldin eta horrekin mina eragingo bazaie, edo sufrimendua, degradazioa, parodia, iseka edo naturaz kontrako trataera badakarte berekin, edo ikusten dutenak mindu baditzakete.</p> <p>t) Animalia etxekotuak nahiz gatibu dauden basa animaliak erabiltzea zirku eta ikuskizunetan.</p>
FLORIDA KALEKO ESPALOA ETA ARGIAK KONPONTZEA DATO ETA SAN ANTONIO KALEEN ARTEAN	1.560.000	<p>GAINDITU EGITEN DU AURREIKUSITAKO AURREKONTUA</p> <p>San Antonio kalearen eta Senda Ibilbidearen artean 390.000 euro</p> <p>Dato eta San Antonio kaleen artean 25.000 euro</p> <p>Dato eta Errioxa kaleen artean 425.000 euro</p> <p>Errioxa kalearen eta Green Capital plazaren artean 320.000 euro</p>

MEJORANDO VITORIA GASTEIZ HOBETUZ

Ez onartutako proposamenak

PROPOSAMENAREN IZENBURUA	KOSTUA	OHARRAK
BIRIBILGUNEAK ETA KALEAK ENPRESAK OMENTZEKO		<p>Gasteizko Udala erreferentziatzeko hainbat irizpide erabiltzen ari da hiriko kaleak edo plazak hiriko enpresekin lotu nahi dituenean. Horietako bat izaten da hirian garrantzi handikoa izan den industria bat desagertzen denean, sortzen diren eremu berriei izena jartzerakoan leku horretan bere garaian izan ziren enpresen aipamena egiten da. Adibideak: Heraclio Fournier, Hebillas, Esmaltaciones, Sierras Alavesas, Aranzabal, Ajuria, eta abar.</p> <p>Beste batzuetan, eta beti ere enpresa handi baten inguruan izena jarri beharreko eremuak edo kaleak daudenean, enpresa horiekin lotura duten izenak aukeratzeko dira. Horrela, adibidez, gaur egun Mercedes enpresaren inguruan Europako beste hiri batzuen izenak dituzten kaleak daude, multinazional horren lantegi bat dagoelako.</p> <p>Beste arrazoi bat da enpresa handi horien izena aldatzeko aukera dagoela, proposamenean agertzen den batekin gertatu zen moduan.</p> <p>Gainera, hirian ez dago izenik gabeko kalerik, eta horietakoren baten gaur egungo izena aldatzea ez da aurreikusten ondorio larriak izaten dituelako bertako bizilagunentzat eta horrek eragiten dien saltoki eta enpresetan.</p> <p>Biribilguneak erabiltzeari buruz dagoen irizpidea da horiek ahalik eta garbienak izan behar dutela, ibilgailuak gidatzerakoan arreta galtzeko arriskurik ez izateko.</p>
TXAKUR-TXIZA		Libre uztea eta hesiak ez dira bateragarriak. Ikus A-14 proposamena: Txakurrentzako eremuak
URPEKO ONTZI HORIA GASTEIZ		Interes bereziko enpresa-proposamena
SMART-LANA		Programaren oinarrietan zuzenean baztertu zen horrek zuen interes berezia. Proposamenean azaltzen da proposamena egin dutenek eta horien hornitzaileek egingo dutela
GALERIA ERAMANGARRIA		Udalak baditu azpiegitura-euskarriak eremu publikorako. Astunagoak dira baina noizean behin erabiltzen dira. Nolanahi ere, era horretako euskarriak kontratatzeke premia ikusiko bagenu, horiek alokatu edo eskuratzeko egin beharreko administrazio-izapideak egiten hasiko ginateke.
KALEAN MONITORE BIDEZKO PREBENTZIOA NERABE, GAZTE ETA HAURRENTZAT (10 URTETIK 18 URTERA) LANEKO TARTEAN		Badago premia hori betetzen duen udal programa bat. Bikoiztasun bat izango litzateke.
IBAIALDE-IBAIONDO PARKEA SORTZEA		URA Uraren Euskal Agentziari legokioke (Proposatzen den parkea Zadorra Ibaiko uholdeen prebentziorako proiektuaren barruan sartua dago. II. Fasea ABETXUKO ZUBIA - GAMARRA HANDIKO ZUBIA. Hori URA Agentziak eraiki beharko luke, erakunde horren eta GASTEIZKO UDALAREN artean sinatu duten hitzarmenaren arabera)

MEJORANDO VITORIA GASTEIZ HOBETUZ

Ez onartutako proposamenak

PROPOSAMENAREN IZENBURUA	KOSTUA	OHARRAK
HIRI-AUTOBUSA 100NEN BAT ERRETIRATURENTZAT		Besteren artean, lineak aldatzeko eta diseinatzeko arrazoiak arreta-irizpideak, dentsitate handiagoa eta bidearen trazaketa izan dira, eta proposamen honetan pertsona kopuru txikiagoari eskainiko litzaioke arreta eta iradokitako trazaketa okerragoa izango litzateke.
LANDATXO, BERE ERRAUTSETATIK SORTU DA		Jabetza pribatuko da. Erdi Aroko Hirigunearen BBPBri atxikita
“MAL SONANTE” ETXEA SAN MARKOS KANTOIAN		Jabetza pribatuko da. Erdi Aroko Hirigunearen BBPBri atxikita
ZADORRA NABIGAGARRIA		URA Uraren Euskal Agentziari legokioke (Proposatzen den parkea Zadorra Ibaiko uholdeen prebentziorako proiektuaren barruan sartua dago. II. Fasea ABETXUKOko Zubia - GAMARRA HANDIKO ZUBIA. Hori URA Agentziak eraiki beharko luke, erakunde horren eta GASTEIZKO UDALAREN artean sinatu duten hitzarmenaren arabera)
ESNATU, LANDATXOKO ATERPEA		Erdi Aroko Hirigunearen BBPBri atxikita
ERDI AROKO ALBOKOA ERRENAZIMENTUKO PLAZA BATEAN		Erdi Aroko Hirigunearen BBPBri atxikita
2 LEIHO ETA ATE 1 MARGOTZEA		Erdi Aroko Hirigunearen BBPBri atxikita
LUR GAINEKO APARKALEKUA HUTSIK DAGOEN LURZATI BATEAN, MESEDEZ!!		Lakuako Auzogunean landu da gaia. Hobekuntzak egin behar dira, baina hori ezin da handitu alboko lurzatiak beste erabilera-sailkapen bat duelako
ERAIKINEKO ZURARI BERNIZA ETA/EDO OLIOAK EMATEA		Erdi Aroko Hirigunearen BBPBri atxikita

MEJORANDO VITORIA GASTEIZ HOBETUZ

Ez onartutako proposamenak

PROPOSAMENAREN IZENBURUA	KOSTUA	OHARRAK
ESKERRIK ASKO GASTEIZKO HIRIARI EMATEN DIOZUEN BALIO ERANTSIAGATIK		Gasteizko Udala erreferentziatzeko hainbat irizpide erabiltzen ari da hiriko kaleak edo plazak hiriko enprekin lotu nahi dituen. Horietako bat izaten da hirian garrantzi handikoa izan den industria bat desagertzen denean, sortzen diren eremu berriei izena jartzerakoan leku horretan bere garaian izan ziren enpresen aipamena egiten da. Adibideak: Heraclio Fournier, Hebillas, Esmaltaciones, Sierras Alavesas, Aranzabal, Ajuria, eta abar. Beste batzuetan, eta beti ere enpresa handi baten inguruan izena jarri beharreko eremuak edo kaleak daudenean, enpresa horiekin lotura duten izenak aukeratzeko dira. Horrela, adibidez, gaur egun Mercedes enpresaren inguruan Europako beste hiri batzuen izenak dituzten kaleak daude, multinazional horren lantegi bat dagoelako. Beste arrazoi bat da enpresa handi horien izena aldatzeko aukera dagoela, proposamenean agertzen den batekin gertatu zen moduan. Gainera, hirian ez dago izenik gabeko kalerik, eta horietakoren baten gaur egungo izena aldatzea ez da aurreikusten ondorio larriak izaten dituelako bertako bizilagunentzat eta horrek eragiten dien saltoki eta enpresetan. Biribilduneak erabiltzeari buruz dagoen irizpidea da horiek ahalik eta garbienak izan behar dutela, ibilgailuak gidatzerakoan arreta galtzeko arriskurik ez izateko.
HERRIARENTZAKO HARRESIAK		Ez du lehentasunik, beti ere harresia erortzeko arriskuan ez badago. Erdi Aroko Hirigunearen BBPBri atxikita
DARDARA ONAK MEDIKUAREN BIDEA APAIZTEGIKO KANTOIA		Erdi Aroko Hirigunearen BBPBri atxikita
HOBETU ZURE MUGIKORTASUNA, ZURE ADIMENA ETA ZURE HIRIA		Udalaren zerbitzu desberdinetan, gizarte-etxeetan, adinduen zentro soziokulturetan eta abarretan gauzatzen den udal jarduerekin ezkutuan geratzen da proposamena.
HIRIGINTZAKO BERRIKUNTZA FRANTZIA KALEAN	2.830.000	GAINDITU EGITEN DU AURREIKUSITAKO KOSTUA
HIRIGINTZAKO BERRIKUNTZA POSTA KALEAN	3.314.000	GAINDITU EGITEN DU AURREIKUSITAKO KOSTUA
HIRIGINTZAKO BERRIKUNTZA ANORBIN KANTOIAN, ERDI AROKO HIRIGUNEAN		Eremu Publikoaren Zerbitzuko irizpideen aurka doa proposatutako lan hori alde horri dagokionez. Erdi Aroko Hirigunearen BBPBri atxikita.
APARKALEKUA ERDI AROKO HIRIGUNEAN		Bai, Mugikortasuneko Planaren filosofiaren aurkako jarduketak izango litzatekeelako, bertakoak ez diren ibilgailu pribatuak Erdi Aroko Hirigunera eramateagatik. Erdi Aroko Hirigunean ahalik eta ibilgailu gutxienez ibiltzea izango litzateke egokiena.
DIPUTAZIO ETA JESUSEN ZERBITZARIEN KALEETAKO HIRIGINTZAKO BERRIKUNTZA ERDI AROKO HIRIGUNEAN	2.030.000	Gainditu egiten du aurreikusitako gehieneko kostua
DOMINGO BELTRÁN KALEKO ESPALOIAK	2.015.000	Gainditu egiten du aurreikusitako gehieneko kostua

MEJORANDO VITORIA GASTEIZ HOBETUZ

Ez onartutako proposamenak

PROPOSAMENAREN IZENBURUA	KOSTUA	OHARRAK
BERRITZEA		
MANUEL IRADIER KALEKO HIRIGINTZAKO BERRIKUNTZA	2.150.000	Gainditu egiten du aurreikusitako gehieneko kostua
OLAGIBEL KALEKO HIRIGINTZAKO BERRIKUNTZA	3.765.000	Gainditu egiten du aurreikusitako gehieneko kostua Kale osoa eraberritzea Agirre Lehendakariaren kaletik Judimendi Hiribidera
HAURRENTZAKO EREMU BAT JARTZEA ERDI AROKO HIRIGUNEKO ALAMEDAKO MARKESAREN PLAZAN		Oso gertu dagoen Aldabe plazan haurrentzako jolasak jartzea aurreikusita dago, Koroatze proiektuaren barruan. Horrela aurkeztu zaie bizilagunei eta badirudi ondo hartu duela eta aurrera aterako den eskaeretako bat dela dagoeneko hasita dagoen parte-hartze prozesuan. Gainera, eserleku zirkularren eta haginaren artean leku gutxi dago, eta tabernako terraza jartzen da. Plaza hori oinezkoentzako eta egonean egoteko errespetatu beharra dagoela pentsatzen dugu. Gaur egun zuhaitz handi bat dago bertan eta horren jarraipena egiten ari gara, erortzeko arriskuan dagoen jakiteko. Ezin dira haurrentzako jolasak jarri horren azpian
APARKALEKUA ZARAMAGA INGURUAN: ERREGE KATOLIKOEN ETA NAFARROAKO ERREGE-ERREGINEN KALEAN	> 450.000	Zaramagako aparkalekuak lurpean egon beharko luke (lur gainean ez dago lekurik) eta horren kostua 450.000 euro baino askoz ere handiagoa izango litzateke.
SAN ANTONIO KALEA OINEZKOENTZAT JARTZEA	1.250.000	Gainditu egiten du aurreikusitako gehieneko kostua
AIALA KANTZILERRAREN KALEA GOITIK BEHERA ERABERRITZEA	1.050.000	Gainditu egiten du aurreikusitako gehieneko kostua
DATO- ALABA JENERALAREN KALEAK ETA INGURUA ERABAT BERRURBANIZATZEA.		Proposatu den egitura-berrikuntzak ez du zentzurik.
ALTZARIAK ALDATZEKO ETA GASTEIZKO ZABALGUNEA GARBITZEKO ETA ARGIAK JARTZEKO ESKAERA		Ez da bidezkoa egin diren eskaeren balorazioa egitea: San Antonio kalea eta Errioxa kalea: ez da aurreikusten argiak hobetzea, datorren hilabeteetan egin beharreko lan bat dagoelako. Posta, Olagibel eta Florida kaleak: ez da aurreikusten, kale horietako argiak orain dela urtebete baino gutxiago aldatu zirelako eta gaur egun 2008ko kanpoko argiztapenerako Eraginkortasun Energetikoaren Araudia betetzen duelako. Ez da aurreikusten. Tranbia igarotzearen seinaleztapena Euskotren Sareari legokiok. • Posta kaleko jardinerak eta altzariak kentzea kalea berritzeko proiektu batean sartu beharko litzateke. • Ez da bidezkoa Dato kaleko magnoliak kentzea, azpiegitura berdearen planen aurkakoa delako.
ALTZARIAK ALDATZEKO ETA GASTEIZKO EKIALDEA GARBITZEKO ETA ARGIAK JARTZEKO		Ez da bidezkoa egin diren eskaeren balorazioa egitea: Beladore bat jartzeko hiri-altzariak mugitzea sailaren irizpideen aurka doa. • Pedro Ignacio Barrutiaren Zidorreko argiztapenak, gaur egun, 2008ko kanpoko

MEJORANDO VITORIA GASTEIZ HOBETUZ

Ez onartutako proposamenak

PROPOSAMENAREN IZENBURUA	KOSTUA	OHARRAK
ESKAERA		argiztapenerako Eraginkortasun Energetikoaren Araudia betetzen du. · San Anton Plazako garbitasuna eta jardinerak hobetzeko lanak beste Departamentuetako urteko mantentze-lanetan sartu beharko dira. · Aiala kantzilerraren kaleko argiak. Argi horiek datozen hilabeteetan egingo den lan batean hobetzea aurreikusita dago.
ALTZARIAK ALDATZEKO ETA GASTEIZKO ZARAMAGA ALDEA GARBITZEKO ETA ARGIAK JARTZEKO ESKAERA		Ez da bidezkoa egin diren eskaeren balorazioa egitea: Merkataritza seinaleztapena jartzea Lokal itxien itxura hobetzea eta edukiontzien begi-talka arintzea
ESPALOIAK ETA ZERBITZUAK EGUNERATUAK Sansomendi eta Paula Montal kalea	4.910.000 €	Gainditu egiten du aurreikusitako gehieneko kostua : Sansomendi kalea 1.790.000 € / eta Paula Montal kalea: 3.120.000 €